

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5173

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 4koa, HABEko zuzendariarena, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC) ezarritako euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatze proben 2024ko ekitaldirako antolaketarako laguntzaileak izendatzeko dena.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, 2020ko irailaren 9ko Aginduaren bidez, HEOCen zedarritutako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezarri zituen, eta, aipatutako aginduaren babesean, HABEren zuzendari nagusiak, 2023ko abenduaren 21eko eta 2024ko urtarrilaren 26ko ebazpenen bidez, aurtengo egiaztatze-deialdiak egin zituen.

Gero, 2024ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, komunikagaitasun-mailak egiaztatze proben Azterketa Batzordeko kideak, HOBE deialdiaren arduradunak, epaimahaiak, ebaluatzaile ikerleak, tutoreak, ordezeko tutoreak, lurralde-arduradunak eta antolaketarako laguntzaileak izendatu zituen, proba horien antolaketa eta didaktika-alorretako lanei ekin ziezaieten.

2024ko deialdian matrikulatzeko aldia amaituta, lehen aipatutako izendapenak osatu behar dira, 2020ko irailaren 9ko Aginduan eta 2024ko urtarrilaren 29ko Ebazpenean xedatutakoari jarraikiz; eta, HABEren 2024ko deialdiak gauzatzeko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– HEOCean ezarritako euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatze 2024. urteko deialdietarako antolaketarako laguntzaile hauek izendatzea:

- Manex De La Granja Arina.
- Belen Anso Galarza.

Bigarrena.– Interesdunei jakinaraztea ezen, administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar diezaioketela Jaurlaritzako lehenengo lehen-dakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko azaroaren 4a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.